ZIERBENAKO UDAL ARGITERIA PUBLIKOA MANTENTZEKO, KONTSERBATZEKO ETA KONPONTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUA.

1. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Zierbenako Udala da kontratatzailea, Toki Administrazioan izaera juridiko publikoa duen erakundea.

Kontratazio-organoa Tokiko Gobernu Batzarra da, Alkateak eskuordetuta.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen arabera egingo den kontratuaren xedea izango da Zierbena udalerrian argiteria publikoko instalazioak mantentzeko, kontserbatzeko eta konpontzeko zerbitzua ematea, baita adostutako jai-jarduerak estaltzea ere, baldintza teknikoen pleguarekin eta espedientean agertzen den gainerako dokumentu teknikoekin bat etorriz; horrez gain, kontratu-izaera izango du eta CPV kodea honako hau da:

50232100-1 Kaleetako argiteria publikoa mantentzeko zerbitzuak

Klausula teknikoen agirietan ezarritakoaren arabera, esleipendunak instalazioen inbentario eguneratua egin beharko du, bai eta argi-puntuen eta lotutako ekipamenduen markaketa ere.

Definitutako kontratua zerbitzuen administrazio-kontratutzat hartuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 17. artikuluak ezartzen duen moduan.

3. GAUZATZEKO EPEA

Kontratua exekutatzeko epea **BI URTEKOA** izango da, kontratua izenpetzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Kontratuaren epea urtebete luzatu ahal izango da, eta gehienez ere **BI URTE**. Hala, xede horretarako eskumeneko kontratazio-organoak berariaz hartuko du erabakia.

Hala ere, kontratuaren aurreikusitako epemuga iritsita, Udalak oraindik beste kontratu bat esleitu ez badu, kontratistak zerbitzua ematen jarraitu beharko du, gehienez ere sei hilabetez. Epe horren barruan, Udalak erabaki beharko du nola kudeatu eta, hala badagokio, kontratazio berria egin. Nolanahi ere, esleipendun berriak ardura hartu arte kontratistak zerbitzua ematen jarraitu beharko du, eta esleipendun berriak ardura hartzen duenean, bitarteko guztiak eskainiko dizkio erreleboa emateko.

4. LIZITAZIOAREN AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Urteko aurrekontua gehienez, kontratua gauzatzeko erabilgarri dagoena, berrogeita zortzi mila seiehun eta hamazortzi euro eta hogeita hamahiru zentimokoa da (48.618,33 €/ urtean), BEZik gabe.

4.1.- Hasieran zenbatutako lanen urteko prezioa honako hau da **(oinarrizko kanona;** horrek barne hartzen ditu oinarrizko mantentze-lanak zein mantentze-lan prebentiboak, eta lanak gauzatzeko beharrezkoak diren langileak, makinak, tresnak eta bitarteko osagarriak, baita egoera txarrean dauden banderak aldatzea ere), agiri teknikoen arabera:

Oinarria: Hamabost mila seiehun eta hirurogeita hamasei euro eta hogeita hamaika zentimo (15.676,31 €).

% 21eko BEZ: Hiru mila berrehun eta laurogeita hamabi euro eta hiru zentimo (3.292,03 €).

GUZTIRA: Hemezortzi mila bederatziehun eta hirurogeita zortzi euro eta hogeita hamalau zentimo (18.968,34 €).

4.2.- Aldatutako materialetarako eta ezohiko zerbitzuetarako urteko gehieneko aurrekontua honako hau da**:**

Oinarria: hamazazpi mila seiehun eta hamar euro eta laurogeita bederatzi zentimo (17.610,89 €).

% 21eko BEZ: hiru mila seiehun eta laurogeita hemezortzi euro eta hogeita bederatzi zentimo (3.698,29 €).

GUZTIRA: hogeita bat mila hirurehun eta bederatzi euro eta hamazortzi zentimo (21.309,18 €)

Baldintza teknikoen agiriari Excel formatuan erantsi diren I. eranskineko dokumentuan adierazitako unitate-prezioak, hobetu ahal izango dituzte lizitatzaileek, ehuneko deskontua aplikatuz, eta ulertuko da horietako bakoitzaren zenbatekoan sartuta daudela kontratu honen xede diren lanak gauzatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak. Ez da onartuko Udalak adierazitako unitate-prezioak gainditzen dituen eskaintzarik.

Era berean, ez da zati bateko eskaintzarik onartuko eta ondorioz, lizitazio-prozeduratik kanpo geldituko dira.

Aintzat hartuta unitate-prezioen arabera zehazten dela prezioa, Administrazioak azkenean aldatzeko aukera izango du ordezkatutako materialen zein ezohiko zerbitzuen urteko gastuaren gehieneko edo gutxieneko aurrekontuaren % 20 baino gehiagoko zenbatekoan, horri dagokion aurrekontu-gastuaren egokitzapena onartu ondoren.

Aintzat hartuta prezioa unitateka finkatuta dagoela eta guztirako zenbatekoa zehaztugabea dela, gastu efektiboa Administrazioaren benetako beharrizanek baldintzatzen dute. Administrazioa ez dago behartuta unitate-kopuru zehatz bat eskatzera, ezta gastu-aurrekontu osoa gastatzera ere.

4.3.- Jaietako instalazioak muntatzeko lanen urteko aurrekontua (hor sartzen dira materialen hornidura eta muntaketa, bai eta lanak gauzatzeko beharrezkoak diren langileak, makineria, erreminta eta bitarteko osagarriak ere), zehaztu beharreko jarraibide teknikoen eta kokapenen arabera, eta konpainia hornitzailearekiko kontratazioa kudeatzeko, honako hau da:

Oinarria: hamabost mila hirurehun eta hogeita hamaika euro eta hamabi zentimo (15.331,12 €).

% 21eko BEZ: mila zortziehun eta hogeita hemeretzi euro eta hirurogeita hamahiru zentimo (1.839,73 €).

GUZTIRA: hamazortzi mila bostehun eta berrogeita hamar euro eta hirurogeita sei zentimo (18.550,66 €).

4.4.- Kontratuaren balio zenbatetsia (SPKLTBren 88. artikulua). Hasierako iraupena (2 urte) eta balizko luzapenak (2 urte gehiago) kontuan hartuta, 194.473,32 € -koa da, hau da, kontratuaren guztizko prezioari dagokiona (BEZ kanpo), kontraturako aurreikusitako lau urteko gehieneko iraupenagatik, luzapenak barne.

Lizitatzaileek aurkezten dituzten eskaintzek ezin izango dute inola ere gainditu urteko gehieneko lizitazio-aurrekontu hori, eta hura gainditzen duten eskaintzak automatikoki baztertuko dira.

Lizitatzaileek aurkezten dituzten eskaintzek ezin izango dute inola ere gainditu urteko gehieneko lizitazio-aurrekontu hori, eta hura gainditzen duten eskaintzak automatikoki baztertuko dira.

5. ZERBITZUAREN FINANTZAKETA

Prezioa 2021erako indarrean dagoen udal-aurrekontuko partiden kargura ordainduko da.

165 227 90 Herriko argiak mantentzea
338 227 98 Jaietako instalazioa

6. KONTRATUAREN ESLEIPEN-PREZIOA ORDAINTZEA

Kontratistak eskubidea du benetan egiten dituen lanak ordain dakizkion, hitzartutako prezioetan, emandako kontratuaren, haren aldaketa onartuen eta Administrazioak emandako aginduen arabera.

Prezioa ordaindu aurretik, faktura Efakturren bidez aurkeztu beharko da, eta lana egin dela egiaztatzen duen hileko agiria onartu, baldintza teknikoen agirian aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta legez aurreikusitako epean.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan ez da, inola ere, prezioak berrikusiko..

8. BERMEAK

Kontratuaren esleipendun ateratzen den lizitatzaileak kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoaren % 5eko bermea eratu beharko du, BEZ alde batera utzita.

Berme hau ondoren adierazitako eraren batean aurkeztu ahal izango da:

a) Esku-dirutan edo zor publikoko baloreetan; eta betiere, kasu bakoitzean Kontratuen Legea garatzeko arauek ezarritako baldintzak beteta. Esku-dirutan emandakoak eta idatzitako baloreen ibilgetze-ziurtagiriak Gordailu-Kutxa Orokorrean zein beronen sukurtsaletan eman daitezke, Ekonomia eta Ogasun ordezkaritzetan. Autonomia-erkidegoak halako Kutxarik edo antzekorik badu, bertan; eta bestela, kontratua egin behar duen toki-entitatearen kutxan, horrexen aurrean izan behar du eragina eta. Nolanahi ere, Legeak ezarritako moduan eta baldintzapean egingo da.

b) Abalaren bitartez, baldin eta honako hauek eman badute: aurrezki-kutxek, banketxeek, kreditu-kooperatibek, kredituko finantza-establezimenduek edo Espainian jarduteko baimena duten elkarren bermerako sozietateek; eta betiere, lege hau garatzeko arauek ezarritakoaren arabera eta bertako baldintzak betez. Aurreko a) atalean adierazitako establezimenduetan emango da abala.

c) Kauzio-aseguruaren kontratuaren bitartez; arlo horretan jarduteko Legeak ezartzen duenaren arabera, erakunde onetsiren batek egin dezake asegurua. Aseguruaren ziurtagiria aurreko ataleko a letran adierazitako establezimenduetan emango da.

Berme-epea amaitu eta kontratua behar bezala bete arte ez da bermea itzuliko edo baliogabetuko.

9. KONTRATUA BETETZEA

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturan gauzatuko da.

Kontratua gauzatzeko, baldintza-agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoa beteko da, eskainitako lizitazioan, eta kontratistari emango zaizkion jarraibideen arabera, kontratazio-organoak interpreta dezan.

Kontratistari edo haren mendeko pertsonei egotz dakizkiekeen egintzen edo ez-egiteen ondorioz kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen bada, administrazioak kontratua behar bezala betetzeko edo ordena horretara itzultzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko eskatu ahal izango du.

Udalak beretzat gordetzen du edozein unetan prestazioa zuzendu eta ikuskatzeko ahalmena, eta kontratistari jarraibideak eman ahal izango dizkio. Jarraibide horiek nahitaez bete beharko ditu kontratistak, baldin eta ez badakarte prestazioa baimenik gabe aldatzea eta ez badira kontratu honetan adostutako baldintzen eta indarrean dagoen legeriaren xedapenen aurkakoak.

Esleipendunak kontratua gauzatzeko arduradun tekniko bat izendatu beharko du, eta Udalak beharrezkotzat jotzen dituen bileretara joan beharko du.

10. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

1. Enpresa kontratistari dagokio, soil-soilik, baldintza-agiri hauetan eskatzen diren titulazio- eta esperientzia-baldintzak betetzen dituzten langileak hautatzea, kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen parte izango direnak, hargatik eragotzi gabe erakunde kontratatzaileak baldintza horiek betetzen direla egiaztatzea.

Enpresa kontratistak ahalegina egingo du lantaldean egonkortasuna egon dadin, eta lantaldearen osaeran gertatzen diren aldaketak puntualak izan daitezen eta justifikatutako arrazoien ondorio izan daitezen, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzeko, eta une oro jakinaraziko dio erakunde kontratatzaileari.

2. Enpresa kontratistak bere gain hartzen du kontratua gauzatzeaz arduratzen den lantaldeko langileen gainean enpresaburu orori datxekion zuzendaritza-boterea modu erreal, eraginkor eta jarraituan gauzatzeko betebeharra. Zehazki, bere gain hartuko ditu soldatak negoziatzea eta ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, baja edo absentzia kasuetan langileak ordezkatzea, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak (kotizazioak ordaintzea eta prestazioak ordaintzea barne, hala badagokio), lan-arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina-ahala baliatzea, eta

langilearen eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak.

3. Enpresa kontratistak bereziki zainduko du kontratua betetzeko atxikitako langileek kontratuaren xede gisa baldintza-agiri hauetan mugatutako jarduerari dagokionez betetzen dituzten funtzioak gainditu gabe garatzen dutela beren jarduera.

4. Enpresa kontratistak Zierbena udalerrian bete beharko du kontratua.

5. Enpresa kontratistak bere plantillan integratutako koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du gutxienez, eta honako betebehar hauek izango ditu, besteak beste:

a) Enpresa kontratistako langileek kontratua gauzatzearekin lotuta Administrazioari egin behar dioten edozein komunikazio jasotzea eta helaraztea.

b) Kontratua gauzatzeko ardura duen langileari lana banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea langile horri.

c) Lantaldea osatzen duten langileek esleituta dituzten eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanpostura joaten direla kontrolatzea.

d). Kontratua gauzatzera atxikitako langileen opor-erregimena antolatzea. Horretarako, enpresa kontratista behar bezala koordinatu beharko da erakunde kontratugile horrekin, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzeko.

e). Kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaeran noizbehinka edo modu iraunkorrean gertatzen diren aldaketen berri ematea erakunde kontratatzaileari.

6. Enpresan euskararen normalkuntzarako plana izatea. Horrez gain, errotuluak, kartelak, seinaleak eta antzeko elementuak euskaraz egongo dira eta, hori ezinezkoa bada, ele bietan idatziko dira, Udalak erabilera planean zehaztutakoaren arabera.

11. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratua exekutatzeko, kontratuaren klausuletan eta pleguetan ezarritakoa bete beharko da, eta kontratazio-organoak kontratistari kontratua interpretatzeko ematen dizkion jarraibideen arabera.

Kontratista izango da egindako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, bai eta kontratua gauzatzean egindako omisio, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrek administrazioari edo hirugarrenei dakarzkien ondorioen erantzule ere.

Kontratistak nahitaez erabili edo atxiki behar ditu kontratua gauzatzeko behar diren giza baliabideak edo baliabide materialak.

12. KONTRATUA ALDATZEA

1. Interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean aurreikusitako kasuetan eta moduan, eta 191. artikuluan araututako prozeduraren arabera, aipatutako Legearen 207. artikuluan aurreikusitako berezitasunekin.

2. Kontratazio-organoek egindako administrazio-kontratuak honako kasu hauetakoren batean bakarrik aldatu ahal izango dira indarrean dauden bitartean:

A) Ez dago aurreikusita aldaketarik klausula partikularren agirietan.

B) Salbuespen gisa, administrazio-klausula zehatzen agirian aurreikusita ez dagoen aldaketa bat egin behar denean, betiere 9/2017 Legearen 205. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Beste edozein kasutan, indarrean dagoen kontratu bat itundutakoa ez den beste modu batean gauzatu behar bada, kontratua suntsiarazi eta beste bat egin beharko da, dagozkion baldintzak betez, lege honetan ezarritakoaren arabera beste lizitazio publiko bat deitu eta gauzatu ondoren, hargatik eragotzi gabe 213. artikuluko 6. paragrafoan xedatutakoa kontratistak beharrezko neurriak hartzeko duen betebeharrari dagokionez, alegia, segurtasun-arrazoiak, zerbitzu publikoa edo aurri posiblea

3. Kontratuaren aldaketak 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira, eta 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoaren arabera argitaratu beharko dira.

13. LANAK JASOTZEA

Kontratu honen xede diren lanak amaitu ondoren, kontratuaren baldintzen eta xedatutakoaren arabera, eta Administrazioaren helburu guztiak betez, kontratua jasotzeko edo onartzeko egintza gauzatuko da.

Kontratu honen ezaugarriak kontuan hartuta, hasitako lan guztiak amaitu direla egiaztatzen den unean lanak bukatutzat joko dira, dagokion egiaztapen-aktaren bidez.

Horretarako, kontratatutako zerbitzuaren jarduerak amaitu ondoren, harrera- edo adostasun-akta bat sinatuko da, egiaztapen-akta egin eta, gehienez, hilabeteko (1) epean.

14. KONTRATISTARI EZ BETETZEAGATIKO ZEHAPENAK

Agiri teknikoetan, kontratatutako zerbitzuetarako ez-betetze eta zigor espezifikoak zehazten dira. Agiri teknikoetan zehaztu ez den orori dagokionez, kontratistari zigorrak aplikatzeko araubidea honako hau izango da:

A) Kontratua gauzatzeko epeak.

Baldin eta kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren exekuzio-epea – Bai epe osoa, bai, hala badagokio, epe partzialak – betetzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, bermea galduaraziz, edo eguneko zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,20 proportzioan (194.473,32 €). Eta hori guztia, eman ez diren zerbitzuen deskontuari kalterik egin gabe.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, zigor gehiago ezarrita.

B) Prestazioen gauzatze partziala.

Baldin eta kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, kontratuan zehaztutako prestazioen gauzatze partziala bete ez badu, administrazioak bi

aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko zigorra ezartzea.

C) Kontratua gaizki betetzeagatik, kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzeagatik edo kaudimen-arloan ezarritako konpromisoak ez betetzeagatik:

• Prestazioa gaizki betetzen bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10eko zigorra ezarri ahal izango du.

• Esleipen-irizpideak ez betetzeagatik (9/2017 Legea, 122.3): kontratuaren aurrekontuaren % 10era arte.

• Gizarte- edo ingurumen-arloko egikaritze-baldintzak betetzen ez badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10eko zigorra ezarri ahal izango du.

• Kaudimena baliabide material edo pertsonalekin osatzeko betebeharra betetzen ez bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10eko zigorra ezarri ahal izango du.

Zigorrak kontratazio-organoaren erabaki bidez ezarriko dira, zeina berehala betearaztekoa izango baita, eta kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko kopuruetatik edo, hala badagokio, eratutako bermetik kenduta ordainduko dira, aipatutako ziurtagirietatik kendu ezin direnean.

15. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua agiri honetan eta 9/2017 Legean adierazitako kasuetan suntsiaraziko da, eta kontratazio-organoak erabakiko du, ofizioz edo kontratistak eskatuta.

Kontratua kontratistaren erruz suntsiarazten denean, behin betiko bermea konfiskatu egingo da, hargatik eragotzi gabe administrazioari sortutako kalte-galeren ordaina ematea, bermearen zenbatekoa gainditzen duten neurrian.

16. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioarenak dira kontratua interpretatzeko, kontratua betetzeak sor ditzakeen zalantzak ebazteko, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzeko, kontratua suntsiaraztea erabakitzeko eta kontratuaren ondorioak zehazteko eskumenak, betiere 9/2017 Legean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen eta baldintzen eta ondorioen barruan.

17. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratazio-organoak kontratazio-mahai baten laguntza izango du. Honela osatuko da mahai hori:

Presidentea:	Iñigo de Loyola Ortuzar Angulo (Alkatea).
Kideak:	Aitor Gorostizaga Ollobarren (Zinegotzia).
	Lorena Renovales Uranga (Behin-beineko idazkari kontu-hartzailea).

Miguel Olave Lizaur (Teknikaria)
María Jaca Ibarbia (Toki garapenerako teknikaria)
Idazkaria: Alina Sandu Pavel (Administraia)

Kontratazio-organoak esleituko du kontratu hau, kontratazio-mahaiak proposatuta, izapidetze arruntaren eta prozedura irekiaren bidez.

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabili behar diren eskaintzak baloratzeko irizpideak, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideetan eta automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideetan banatuta, garrantziaren beheranzko ordenan eta esleitzen zaien haztapenaren arabera zerrendatuta, honako hauek dira:

17.1. *IRIZPIDE HAZTAGARRIAK, BALIO-JUDIZIOAREN ARABERA:*

MEMORIA TEKNIKOA, ZERBITZUAREN ANTOLAMENDUARI ETA GARAPENARI ETA ESKURA DAUDEN BALIABIDEEI BURUZKOA: 0 ETA 40 PUNTU BITARTEAN.

1- **Zerbitzua garatzeko eta antolatzeko programa. Gehienez 34 puntu emango dira, honela banatuta:**

1.- Gehienez ere 20 puntu emango dira zerbitzuaren eta antolaketaren deskribapen laburrari, bereziki honako hauek baloratuko dira:

- Zerbitzua kudeatzeko ezarri beharreko sistemen eta tresnen prestasuna eta eraginkortasuna, egindako lanak justifikatzeko plana, Udalarekiko komunikazioa, abisuak izapidetzea, gorabeherak, etab.
- Zerbitzuari atxikitako giza baliabideak eta haien egokitasuna
- Zerbitzuari atxikitako baliabide materialak eta horien egokitasuna.

2.- Gehienez ere 10 punturekin baloratuko dira ingurumenean eragin txikiagoa eta energia-kontsumoaren efizientzia handiagoa kontuan hartzen dituzten zerbitzuko neurriak eta metodologiak. Ondorio horietarako, ingurumen-kudeaketako programa baten aurkezpena hartuko da kontuan, lan-planean integratua, zeinak, zehatz-mehatz, egutegia eta lizitatzaileak obrak gauzatzearen ondoriozko inpaktuak minimizatzeko ezarriko dituen neurriak jaso beharko lituzkeen. Programak honako elementu hauek jaso ahal izango ditu, besteak beste:

a) Hondakinak (luminariak, ekipo elektrikoak, lanparak eta bestelakoak) behar bezala eta gaika kudeatzea, berrerabiltzeko edo modu kontrolatuan kudeatzeko.
b) Atmosferara egiten diren isurketak minimizatzea (CO2, argi-kutsadura, etab.), eta energia eta erregaien arrazoizko kontrola eta kontsumoa.
c) Langileen berariazko prestakuntza, arestian aipatutako alderdiak kontuan har ditzaten.

3.- Gehienez ere 4 punturekin baloratuko da erantzun-denbora, gorabeheraren unearen eta gorabehera edo egoera mota desberdinen arabera.

2.- Egin beharreko inbentarioa. Gehienez 4 puntu

Inbentario-proposamenaren kalitateagatik 4 puntu emango dira gehienez, kontuan hartuta haren zabaltasuna, editatzeko malgutasuna, maneiuaren intuizioa eta praktikotasuna.

3.- Hobekuntza-proposamena: Gehienez ere 2 puntu,

Kontratuaren xedearekin zerikusia duten eta aurreko puntuetan zuzenean edo zeharka jasotzen ez diren eta lizitatzaileak egiten dituen beste hobekuntza batzuen eskaintza 2 puntura arte baloratuko da.

17.2. AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK:

- **Oinarrizko kanonaren eta jaien muntaketaren baturari buruzko eskaintza ekonomikoa:** gehienez 42 puntu. Eskaintzarik merkeenari gehieneko puntuazioa emango zaio, eta gainerako eskaintzei, berriz, honako formula honetatik ondorioztatzen dena: eskaintza ekonomiko baxuenaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza bider irizpidean aplikatu beharreko puntuen guztizko kopurua.

P = (Ob x 42) / Ol

Hau da:
P lortutako puntuazioa da.
Ob eskaintza ekonomiko baxuena da.
Ol baloratzen den lizitatzailearen eskaintza da.

BALIO ANORMALAK EDO NEURRIZ KANPOKOAK DITUZTEN BAJAK: prezioari buruzko eskaintzak neurriz kanpokotzat edo ausarkeriazkotzat joko dira, baldin eta haien bajaren ehunekoak lizitazioan aurkeztutako bajen batez bestekoa 10 puntutan gainditzen badu, edo 20 balioetsi beharreko eskaintzak bi baino ez badira**.**

Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera ezarritako parametro objektiboen arabera baloratuko da eskaintzak neurrigabeak edo anormalak diren.

- **Erreferentzia-prezioen taularen gaineko deskontu-eskaintza**: puntu 1 emango da prezioen zerrendari aplikatzen zaion % 1eko murrizketa bakoitzeko, gehienez 5 puntu.

- **Instalazioen distantzia**. BOST (5) puntu emango zaizkio Zierbenako Udaletik hurbilen dauden instalazio zentralei edo Euskadin egoitza (Aldapa auzoa, 1) duen eskaintzari, baliabide gehiago behar dituzten gorabehera, larrialdi eta bestelako

jarduketen aurrean erantzun azkarragoa eman baitezakete, bai eta mantentze zerbitzurako bererako jarritakoez gain, lanpostutik obrara dagoen distantziak eragindako ingurumen-kostuak ere murrizten direlako.

Honela baloratuko da:

Distantzia Zierbenako Udaletxera (km)	Puntuazioa
20,00 > distantzia	0 puntu
Distantzia:12 baino handiagoa eta 20 baino txikiagoa	1 puntu
Distantzia: 6 baino handiagoa eta 12 baino txikiagoa	2 puntu
Distantzia: 6 edo handiagoa	5 puntu

4º) - Inbentarioa aurkezteko gehieneko epea: lau hilabete. Argiteria publikoaren sistemako argi-puntuen eta instalazio osagarrien (aginte-zentroak, semaforoak, korronte-hargune osagarriak, etab.) inbentarioa entregatzeko epea laburtzen den hilabete bakoitzeko HIRU (3) PUNTU emango dira, gehienez ere. Inbentario horretan laneko ekipoen eta fitxategien deskribapena jasoko da, Autocad eta GIS shape formatu estandarrean.

5º) Ziurtagiriak aurkeztea. Gehienez BOST (5) PUNTU emango dira. Jarraian zerrendatutako ziurtagiri bakoitzeko puntu bat (1,0) lortuko da. Nahitaez aurkeztu behar da ziurtagiriaren jatorrizkoaren kopia, eta baliozkoak izan daitezen, indarrean egon beharko dute lehiaketaren dokumentazioa aurkezten den egunean.

Ziurtagirien zerrenda:

- Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren Ziurtagiria, ISO 9001, baliokidea edo goragokoa.
- Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria, ISO 14001 edo baliokidea.
- Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria, ISO 45001; OHSAS 18001 edo baliokidea.
- Energia Kudeatzeko Sistemaren ISO 50001 ziurtagiria edo baliokidea.
- Erantzukizun soziala kudeatzeko sistemaren ziurtagiria, ISO 26000, IQNet SR 10 edo baliokidea

18. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Eskaintzak aurkeztu ahal izango dituzte jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek zein atzerritarrek, baldin eta kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute.

1. Honela egiaztatuko da enpresaburuen jarduteko gaitasuna:

a) Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, sortze

eskritura edo agiriaren, estatutuen edo sortze-ekitaldiaren bitartez egin beharko da. Bertan, beren jarduera erregulatzen duten arauak agertu beharko dute, pertsona juridiko motaren arabera behar bezala inskribatuta, dagokien Erregistro Publikoan.

b) Europar Batasuneko Estatu Kideetako nazionalak diren enpresari ez espainiarrek jarduteko gaitasuna adieraziko dute, ezarrita dauden Estatuko legearekin bat datorren erregistroko izen-ematearen bitartez, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztuz; betiere, erreglamenduak ezarritako baldintzetan eta aplikagarriak diren erkidegoko xedapenekin bat etorriz.

c) Gainontzeko enpresari atzerritarrek, dagokion lurralde-eremuan dagoen Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo enpresaren helbidea dagoen Kontsuletxeko Bulegoko txostenaz.

2.- 9/2017 Legearen 71. artikuluan aurrez ikusten diren kontratatzeko debekuren bat ez dutelako enpresarien proba, egin ahal izango da:

a) Lekukotza judizialaren edo administrazio-ziurtagiriaren bitartez, kasuaren arabera. Eskumena duen autoritateak ezin badu agiria igorri, administrazio-autoritate, notario publiko edo erakunde profesional kualifikatu batean egindako adierazpen arduratsu batengatik ordezkatu ahal izango da.
b) Europar Batasuneko Estatu Kideetako enpresak badira eta aukera hau aurrez ikusita badago dagokion Estatuaren legerian, ordezkatu ahal izango da agintari judizial baten aurrean emandako adierazpen arduratsu batengatik.

3. Enpresariaren kaudimena:

Enpresaburuak bere kaudimena egiaztatu ahal izango du agiri honetan eskatzen diren kaudimen-betekizun espezifikoak betetzen dituela egiaztatuz. Baldintza horiek honako hauek dira:

500.000,00 €-tik beherako balioa duen kontratua izanik, 9/2017 Legearen 77. artikuluarekin bat etorriz, enpresaburuak bere kaudimena egiaztatu ahal izango du, kontratuari dagokion sailkapen-taldean edo -azpitaldean obra-kontratista gisa sailkatuta. Hona hemen:

P taldea) Ekipo eta instalazioen mantentze- eta konponketa-zerbitzuak
1 azpitaldea. Ekipo eta instalazio elektrikoak eta elektronikoak mantentzea eta konpontzea.

ZENBATEKOA / KATEGORIA /1098/2001 ED, DAGOKION KATEGORIA
150.000€-ra arte / **1** / **A**

Edo, bestela, kaudimen-betekizun espezifiko hauek betetzen direla egiaztatuz:

3.1 Kaudimen ekonomikoa.

Kontratuak aipatzen duen esparruko urteko negozio-bolumena, azken hiru ekitaldietako ekitaldi onenari dagokiona, enpresaburuaren eraketa- edo jarduera-hasieraren eta eskaintzak aurkeztearen daten arabera. Zenbatekoa lizitazio-iragarkiaren zenbatekoaren berdina edo bat eta erdi handiagoa izango da, hau da (48.618,33 €/ urte* 1,5 =) 72.927,50 € baino handiagoa.

3.2. Enpresaburuen kaudimen teknikoa, kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatuz, azken hiru urteetan egindako zerbitzu nagusien zerrendaren bidez gauzatuko da. Zerbitzu horiek kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera berekoak edo antzekoak izango dira, eta, horien urteko zenbateko metatua, exekuzio handieneko urtean, kontratuaren batez besteko urtekoaren bat eta erdi izango da (72.927,50 €).

19. PROPOSAMENAK ETA ESKATUTAKO AGIRIAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea eta horri lotutako dokumentazio teknikoa Zierbenako Udaleko bulegoetan egongo dira ikusgai, **9:00etatik 13:00etara**, egun baliodun guztietan, lizitazio honen iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Proposamenak Zierbenako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, goian adierazitako ordutegi berean eta **15 egun naturaleko epean**, lizitazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Plataforma horretan, epea ixten den eguna eta ordua adieraziko dira. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edo baliogabea bada, astelehenera edo hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da, hurrenez hurren.

Lizitazio hori kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean iragarriko da, eta atari informatiko edo web orri honetan aztertu ahal izango da: **www.zierbena.net**.

Proposamenak postaz ere aurkeztu ahal izango dira; kasu horretan, interesdunak, dagokion frogagiriarekin batera, posta-bulegoan bidalketa egin den eguna eta ordua justifikatu beharko ditu, eta Zierbenako Udaleko Erregistroari **jakinarazi beharko dio eskaera posta elektronikoz, telefaxez edo telegramaz bidali dela, egun berean eta betiere 13:00ak baino lehen.** Baldintza horiek betetzen ez badira edo bidalketaren jakinarazpena eskabideak jasotzeko epea igaro ondoren jasotzen bada, eskaera ez da onartuko. Adierazitako dataren ondorengo hamar egun naturaletan eskabidea jaso ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Lizitatzaileek hiru gutun-azal aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C), eta horietako bakoitzean inskripzioa agertuko da: "ZIERBENAKO ARGITERIA PUBLIKOA MANTENTZEKO, KONTSERBATZEKO ETA KONPONTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Gutun-azal guztietan enpresaren izaera adieraziko da.

"A" gutun-azalak, "**KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**" azpititulua duenak (gutun-azal irekia), honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak.
b) Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak.
— Beste baten izenean agertu edo eskaintzak sinatzen dituztenek ordezkaritza-ahalordearen kopia aurkeztuko dute.
— Hautagaia pertsona juridikoa bada, ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du, legeak hala eskatzen duenean.
— Era berean, ordezkaritza-ahalordea duen pertsonak bere nortasun-agiri nazionalaren kopia aurkeztu beharko du.
c) Erantzukizunpeko adierazpena, I. eranskinaren arabera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotako kontratatzeko debekurik ez duela adierazten duena.
d) Ekonomia-, finantza- eta teknika- edo lanbide-kaudimeneko baldintzak betetzen direla justifikatzen duten agiriak, kontratisten erregistroaren kopiaren bidez, edo, bestela, II. eta III. Eranskinak erabilita.

e) Atzerriko enpresek, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazten duen adierazpena aurkeztuko dute, eta, hala badagokio, hautagaiari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo diote.
f) Enpresaburu bat baino gehiago lizitaziora aldi baterako enpresa-elkarte bat eratuz aurkezten badira, elkarte horretako kide bakoitzak aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko du bere gaitasuna eta kaudimena, eta, halaber, adjudikaziodun izanez gero ABEE formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko du. Era berean, proposamenean ABEEko kide bakoitzak egingo lituzkeen izena eta objektuaren zatia adieraziko dituzte, guztien kaudimen-betekizunak zehazteko eta egiaztatzeko.
g) Atzerriko enpresek, aurreko baldintzak betetzeaz gain, kontratutik zuzenean edo zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazten duen adierazpena, eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adierazten duena.

"B" gutun-azala (gutun-azal itxia): azpititulu hau izango du: "AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK", eta eskaintzak baloratzeko baldintza-agiri honetan adierazitako irizpideak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa jasoko du:

- Zerbitzua garatzeko eta antolatzeko programa.
- Egin beharreko inbentarioa.

- Hobetzeko proposamena.

"C" gutun-azalak (gutun-azal itxia) "AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK" azpititulua izango du, eta IV. eranskin gisa erantsi den ereduaren araberako proposamena baino ez du jasoko.

Gutun-azal bakoitzaren edukia errespetatzen ez duten eskaintzak atzera botako dira, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideei dagokien dokumentazioa eta automatikoki kuantifikatu daitezkeenei dagokiena bereizi ez direlako.

Administrazioak, kontratua esleitu aurretik nahiz ondoren, egiaztatu ahal izango du A, B eta C gutun-azaletako dokumentuen edukia egiazkoa dela. Enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak badira, kontratua deuseztatu ahal izango da, kontratistari egotz dakiokeen ez-betetzeagatik, eta, hala badagokio, eratutako behin betiko bermea galduko da, edo, bestela, kontratuaren balioagatiko kalte-ordaina bermea eratu ez bada; gainera, sortutako kalte-galeren kalte-ordaina eman beharko dio Administrazioari, bermearen zenbatekotik gorakoak badira.

Behin kontratua esleituta, eta errekurtsoak jartzeko epeak amaitu eta errekurtsorik formalizatu ez bada, esleipendun ez diren enpresen esku geratuko da proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa. Egun horretatik aurrera, hilabeteko epean dokumentazio hori eskatzen ez bada, suntsitu egingo da.

Eskatutako dokumentazioa jatorrizkoan edo haren kopian aurkeztu ahal izango da, administrazio honek edo notarioak behar bezala konpultsatuta edo egiaztatuta.

20. DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

20.1. Dokumentazioaren kalifikazioa, zuzendu daitezkeen akatsak.

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaiak, jendaurrekoa ez den egintza batean, lizitatzaileek A gutun-azalean aurkeztutako administrazio-agiriak ireki eta egiaztatuko ditu, garaiz eta behar bezala.

Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak edo omisioak ikusten badira, kontratazio-mahaiak fax edo posta elektroniko bidez jakinaraziko die interesdunei, eta gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango die, jakinarazpena egiten den egunetik zenbatzen hasita, atzemandako funtsezkoak ez diren akatsak zuzentzeko.

Dokumentazioan funtsezko akatsak edo zuzendu ezin diren akats materialak badaude, proposamena baztertuko da.

Behin lan horiek amaituta, kontratazio-mahaiak berariazko erabakia hartuko du lizitaziorako onartutakoei, baztertutakoei eta baztertzeko arrazoiei buruz.

20.2. Proposamenak ekitaldi publikoan zabaltzea

Lehen ekitaldia. B GUTUN-AZALEAN (AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK) dagoen dokumentazioa Zierbenako Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako egunean eta orduan irekiko da.

Egintza horretan, honako hauen berri emango da: aurkeztutako proposamenak, lizitatzaileen izena, dokumentuen kalifikazioaren emaitza eta, hala badagokio, dokumentuen akatsak zuzendu izanaren emaitza. Ondoren, Mahaiak eskaintza teknikoetako gutun-azalak irekiko ditu, aurkezten diren hurrenkeraren arabera, eta bakoitzaren edukia jakinaraziko du.

Egindako guztia dokumentu bidez jasota geratuko da.

Bigarren ekitaldia. Balorazioa amaitutakoan eta, hala badagokio, dagokion txosten teknikoa egindakoan, beste ekitaldi publiko baterako deia egingo da, Zierbenako Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako egunean eta orduan.

Lehenik eta behin, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideen balorazioaren emaitza jakinaraziko da.

Bigarrenik, C GUTUN-AZALEAN (AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK) dagoen dokumentazioa irekiko da, eta proposamen ekonomikoak irakurriko dira.

Eskaintza onuragarrienen artean berdinketa gertatzen bada, zenbateko txikieneko eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen lizitatzaileari esleituko zaio kontratua; berdinketak jarraitzen badu, kontratazio-mahaiak egindako zozketa bidez esleituko da kontratua.

Ondoren, dagozkion txosten teknikoak egin ondoren, kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena igorriko dio proposamena egin behar duen kontratazio-organoari.

21. ESKAINTZAK SAILKATZEA, ESLEITZEA, FORMALIZATZEA ETA GASTUAK

21.1. Eskaintzak sailkatzea.

Kontratazio-organoak sailkatuko ditu, handienetik txikienera, aurkeztutako proposamenak, neurriz kanpokotzat edo anormaltzat jo ez direnak. Sailkapen hori egiteko, pleguan adierazitako esleipen-irizpideak hartuko ditu kontuan, eta, horretarako, egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Kontratazio-organoak eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, dokumentazio hau aurkez dezan:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete izanaren egiaztagiria.
- Kontratuaren esleipen-zenbatekoaren % 5ari dagokion behin betiko bermea eratzea (BEZ kanpo).
- ABEEa adjudikaziodun gertatzen denean, adierazitako dokumentuez gain, epe berean aurkeztu beharko dira ABEEa eratu izanaren eskritura publikoa, aldi baterako elkarteari esleitutako IFK eta ahalorde nahikoa duen ordezkaria edo ahalduna izendatzea.

Errekerimendu hori adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatu diren ordenaren arabera.

Gainera, esleipendunak publizitate ofizialeko gastuak ordaindu beharko ditu, halakorik balego, gehienez ere 150 €.

21.2. Kontratua esleitzea.

Bermeak jaso ondoren, kontratazio-organoak bost egun balioduneko epean esleitu beharko du kontratua, dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lizitazio bat ezin izango da, inola ere, esleitu gabe utzi, baldintza-agirian jasotako irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat aurkeztu bada.

Esleipena arrazoitu egin beharko da, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Jakinarazpenean, nolanahi ere, beharrezko informazioa jaso beharko da, baztertutako lizitatzaileak edo hautagaiak esleipen-erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsoa jartzeko aukera izan dezan. Zehazki, honako hauek adieraziko ditu:

- Baztertutako hautagaiei dagokienez, hautagaitza ezesteko arrazoien azalpen laburra.
- Esleipen-prozeduratik kanpo utzitako lizitatzaileei dagokienez ere, laburbilduta, eskaintza ez onartzeko arrazoiak.
- Nolanahi ere, esleipendunaren izena, eta esleipendunaren proposamenaren ezaugarriak eta abantailak, esleipendunaren eskaintza hautatua izateko erabakigarriak izan direnak eta onartu diren gainerako lizitatzaileek aurkeztutakoen aurretik gelditzeko arrazoiak.
- Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean adieraziko da zein epetan formalizatu behar den.

Jakinarazpena egingo da hartzaileak jaso duela jasota uztea ahalbidetzen duen edozein bitartekoren bidez, eta lehentasuna izango du posta elektronikoz egitea lizitatzaileek edo hautagaiek beren proposamenak aurkeztean izendatu duten helbidera.

21.3. Kontratua formalizatzea.

Kontratua administrazio-agiri bidez formalizatuko da esleipena jakinarazten den egunetik kontatzen hasi eta hamabost egun balioduneko epean; agiri hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Kontratistak eska dezake kontratua eskritura publiko bihurtzeko, eta bere kontura izango dira dagozkion gastuak.

22. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honek izaera administratiboa du, eta haren prestaketa, esleipena, ondorioak eta azkentzea agiri honetan ezarritakoaren arabera arautuko dira, eta bertan aurreikusten ez denerako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea aplikatuko da; osagarri gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzio Ordenak izango du kontratu honetan alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko eskumena, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoaren arabera.

Zierbenan, 2021eko urtarrilaren 18an

I . ERANSKINA

ERANTZUKIZUNEZKO AITORPENA

..... jaunak/andreak (helbidea: …… NA zk.: .....), bere izenean edo ..... enpresaren ordezkaritzan

ADIERAZTEN DUT

1.- Ez sinatzaileari ezta ordezkatzen dudan erakundeari edo enpresari, ez bere administratzaileei edo ordezkariei, ez dietela eragiten Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekuek.

2.- Indarrean den araudiak aurreikusitako zerga arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak dituela eta kontratu honi dagokion JEZren matrikularen epigrafean ez duela bajarik hartu.

.....(e)n, 2021eko .....aren .....(e)(a)n.

Sin.

II ERANSKINA

Urteko kontuak Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean gordailututa dituen esleipendunarentzako KAUDIMEN EKONOMIKOAREN AURKEZPEN-EREDUA

..... jaun/andreak, (NAN zk.: .....), bere izenean edo ..... IFK zk. duen ……..... enpresaren ordezkaritzan (adierazi administrari bakarra, ahalduna… den), **"ZIERBENAKO ARGITERIA PUBLIKOA MANTENTZEKO, KONTSERBATZEKO ETA KONPONTZEKO ZERBITZUA"** kontratatzeari dagokion kontratua betetzeko KAUDIMEN EKONOMIKOA egiaztatze aldera.

HONAKOA AITORTU DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Ondoren adierazten diren datuak bat datozela onartutako Urteko Kontuekin eta dagokion Merkataritza Erregistroan edo Erregistro Ofizialean aurkeztutakoekin; izan ere datu horiek amaitutako hiru urteen artean negozio-bolumen handieneko ekitaldiari dagozkio. Halaber, Zierbenako Udalak datuak egiazkoak direla egiaztatzeko baimena izango du.

Kontuak aurkeztu diren ERREGISTROA	URTEA	URTEKO NEGOZIO BOLUMENA (BEZ kanpo)

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko, honako kaudimen ekonomiko honek dagozkion ondorioak izan ditzan, ondorengoa sinatzen du:

_____n, 20__ko _____aren _____(e)an.

Lizitatzailearen sinadura,

III. ERANSKINA

KAUDIMEN TEKNIKOA AURKEZTEKO EREDUA

..... jaun/andreak, (NAN zk.: .....), bere izenean edo ..... IFK zk. duen ……..... enpresaren ordezkaritzan (adierazi administrari bakarra, ahalduna… den), **"ZIERBENAKO ARGITERIA PUBLIKOA MANTENTZEKO, KONTSERBATZEKO ETA KONPONTZEKO ZERBITZUA"** kontratatzeari dagokion kontratua betetzeko KAUDIMEN EKONOMIKOA egiaztatze aldera.

ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DU:

Kontratuaren xedearen mota edo izaera bereko lanak, azken hiru urteetan egindakoak, eranskin honetan zerrendatu dira, eta horiei buruzko ziurtagiriak edo egiaztagiriak aurkeztu ditu.

EGINDAKO LAN GARRANTZITSUENAK

Urtea _____

Izaera	Bezeroa	Urtean egindakoagatik zenbatekoa

Urtea _____

Izaera	Bezeroa	Urtean egindakoagatik zenbatekoa

Urtea _____

Izaera	Bezeroa	Urtean egindakoagatik zenbatekoa

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko, kaudimen tekniko honek dagozkion ondorioak izan ditzan, ondorengoa sinatzen du:

_____n, 20__ko _____aren _____(e)an.

Lizitatzailearen sinadura,

IV. ERANSKINA:

IRIZPIDE OBJEKTIBOAK PROPOSATZEKO EREDUA

.....), bere izenean edo ..... IFK zk. duen ……..... enpresaren ordezkaritzan (adierazi administrari bakarra, ahalduna… den), **"ZIERBENAKO ARGITERIA PUBLIKOA MANTENTZEKO, KONTSERBATZEKO ETA KONPONTZEKO ZERBITZUA"** kontratatzeari dagokion kontratua betetzeko adierazten dut:

1. Konpromisoa hartzen dudala URTEKO prezio hau ordaintzeko:

Zerbitzua	Oinarria	BEZ	GUZTIRA
a) Oinarrizko kanona, oinarrizko mantenua eta prebentziokoa barne hartzen dituena..	(Gehienez 15.676,31 €) ……..€	……€	…..….€
b) JAIETAKO INSTALAZIOAK MUNTATZEA	(Gehienez 15.331,12 €) ……..€	……€	…..….€
GUZTIRA	(a+b batuketa) ……..€	……€	…..….€

2. Erreferentziako prezioen taularen gaineko deskontu-eskaintza:

Erreferentziazko prezioen taularen gaineko deskontu hau eskaintzen da:	% ___ , ___

3º. Zierbenako Udaletxeraino dagoen distantzia (km):

Zierbenako Udaletxeraino dagoen distantzia (km)	Puntuazioa	Helbidea eta distantzia
20,00 > distantzia	0 puntu	
Distantzia:12 baino handiagoa eta 20 baino txikiagoa	1 puntu	
Distantzia: 6 baino handiagoa eta 12 baino txikiagoa	2 puntu	
Distantzia: 6 edo handiagoa	5 puntu	

4. Inbentarioa aurkezteko epea murriztea:

Aurkezteko epea	Puntuazioa	BAI	EZ
4 hilabete	0 puntu		
3 hilabete edo	1 puntu		
2 hilabete	2 puntu		
1 hilabete.	3 puntu		

5. **Ziurtagiriak:**

	BAI	EZ
Kalitatearen kudeaketa, ISO 9001 edo baliokidea.		
Ingurumenaren kudeaketa, ISO 14001 edo baliokidea.		
Segurtasunaren eta Osasunaren kudeaketa ISO 45001, OHSAS 18001 edo baliokidea.		
Energiaren kudeaketa, ISO 50001 edo baliokidea		
Erantzukizun zibila, ISO 26000, IQNET SR 10 edo baliokidea.		

Ezagutzen ditudala baldintza teknikoen agiria, administrazio-klausula zehatzen agiria eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak, eta oso-osorik onartzen ditudala.

2021eko ……..ren …….ean

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO, CONSERVACION Y REPARACION DEL ALUMBRADO PUBLICO MUNICIPAL DE ZIERBENA.

1. ENTE CONTRATANTE Y ÓRGANO DE CONTRATACIÓN

El sujeto contratante es el Ayuntamiento de Zierbena, ente con personalidad jurídica pública de la Administración Local.

El órgano de contratación es la Junta de Gobierno Local, por delegación del Alcalde.

2. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que se realice tendrá por objeto la prestación del servicio de mantenimiento, conservación, reparación de las instalaciones de alumbrado público municipal e instalación de eventos festivos convenidos del Término Municipal de Zierbena, de acuerdo con el pliego de prescripciones técnicas y el resto de la documentación técnica que figura en el expediente y que tendrá carácter contractual, cuya codificación es CPV:

50232100-1 Servicios de mantenimiento de alumbrado público de calles

Conforme se establece en los Pliegos de Cláusulas técnicas, el adjudicatario deberá realizar un inventario actualizado de las instalaciones y el marcado de los puntos de luz y equipamiento conexo.

El contrato definido tiene la calificación de contrato administrativo de servicios, tal y como establece el artículo 17 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

3. PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo de duración del presente contrato será de **DOS AÑOS**, contados desde el día siguiente al de la firma del contrato.

El plazo contractual será susceptible de prórroga anual, por un máximo de **DOS AÑOS**, debiendo recaer al efecto acuerdo expreso del órgano de contratación competente.

No obstante si llegado el término previsto del contrato, el Ayuntamiento aún no hubiera adjudicado un nuevo contrato, el contratista estará obligado a proseguir con la prestación del servicio por tiempo no superior a seis meses, dentro del cual el Ayuntamiento deberá decidir sobre la forma de gestión y, en su caso, la nueva contratación y debiendo permanecer, en cualquier caso, en la realización del servicio

que se produzca el relevo por el nuevo adjudicatario, facilitando el mismo con todos los medios a su alcance.

4. PRESUPUESTO DE LICITACIÓN Y VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO

El **presupuesto máximo al año**, disponible para la ejecución del contrato, asciende a: CUARENTA Y OCHO MIL SEISCIENTOS DIECIOCHO EUROS Y TREINTA Y TRES CÉNTIMOS, (48.618,33€/año) ANUALES, excluido el IVA.

4.1.- El presupuesto anual de los trabajos inicialmente cuantificados (CANON BÁSICO, en el que se incluyen el mantenimiento básico y el preventivo, y la disposición del personal, maquinaria, herramientas y medios auxiliares necesarios para la ejecución de los trabajos, así como la sustitución de las banderas deterioradas), según la documentación técnica, asciende a:

Base: Quince mil seiscientos setenta y seis con treinta y un céntimos (15.676,31 €).

IVA al 21%: Tres mil doscientas noventa y dos euros con tres céntimos (3.292,03 €).

TOTAL: Dieciocho mil novecientos sesenta y ocho euros y treinta y cuatro céntimos (18.968,34 €).

4.2.- El presupuesto anual máximo de gasto previsto para los MATERIALES SUSTITUIDOS Y SERVICIOS EXCEPCIONALES asciende a:

Base: Diecisiete mil seiscientos diez euros con ochenta y nueve céntimos (17.610,89 €).

IVA al 21%: Tres mil seiscientas noventa y ocho euros con veintinueve céntimos (3.698,29 €).

TOTAL: Veintiún mil trescientos nueve euros y dieciocho céntimos (21.309,18 €)

Los precios unitarios señalados en el Documento Anexo I que se adjuntan en formato Excel al pliego de prescripciones técnicas podrán ser mejorados por los licitadores, mediante la aplicación de un porcentaje de descuento, entendiéndose que en el importe de cada uno de ellos están incluidos la totalidad de los costes necesarios para ejecutar los trabajos objeto de este contrato. No se admitirán ofertas que superen los precios unitarios indicados por el Ayuntamiento.

